

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZAMBRANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2020ko lehen lauhileko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko ipintzea**

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2020ko lehenengo seihilekoa) ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda egin da, baita 2020ko ekainaren 17an onartu ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 98. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko uztailaren 15etik irailaren 15era artekoa izango da, egun biak barne.

Tasaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko uztailaren 17an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 8:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Internet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zambrana, 2020ko ekainaren 18a

*Errejidore-lehendakaria*

**EDUARDO GOMEZ GORDEJUELA**